

2022/2023 ikasturtea

**ELIKADURA MOTA DESBERDINEK 2 MOTAKO DIABETES
MELLITUSAREN GLUZEMIAREN KONTROLEAN DUTEN
ERAGINA**

Egilea: Eider Herrarte Balluerka
Zuzendaria: Idoia Zarrasquin Arizaga

LABURPENA

Sarrera: 2 motako diabetesa odoleko glukosa mailak altuegi izatea eragiten duen gaixotasun metabolikoa da. Osasun publikorako arazo larria da, populazioaren kopuru handi bati eta organo nagusi askori eragiten baitie. Elikadura 2 motako Diabetes Mellitusa prebenitzeko eta kudeatzeko ezinbesteko tratamendu ez-farmakologikoa dela kontuan hartuz, erizainak dieta osasuntsuen inguruko informazioa eskaini diezaieke pazienteei. Horrela, osasun-hezkuntza egokiaren bidez gaixotasunaren prebentzioan rol garrantzitsua bete dezake.

Helburua: lan honen helburu nagusia 2 motako Diabetes Mellitusa pairatzen duten pazienteen gluzemia kontrolatzeko dieta ezberdinen (begetarianoa, mediterranea, zetogenikoa eta beganoa) eraginkortasuna aztertzen duten artikuluen errebisio sistematiko bat egitea da. Halaber, errebisio sistematiko horretan lortutako emaitzetan oinarrituz, erizainok aplika dezakegun elikadura gida baten oinarriak proposatu nahi dira.

Metodologia: PIO egitura jarraituz PubMed, BVS, Scopus eta Cochrane datu-baseetan bilaketa-sistematikoa egin da. Bilaketa hori 2022ko abenduaren 10an egin da eta 2013tik 2022ra bitartean argitaratutako argitalpenak barne hartu dira.

Emaitzak: bai dieta begetarianoak eta bai dieta mediterraneoak hemoglobina glikosilatuan eragin positiboa dute. Beraz, biak aukera egokiak dira 2 motako Diabetes Mellitusaren prebentziorako eta odoleko glukosa mailak balore egokietan mantentzeko. Dieta zetogenikoari eta beganoari dagokienez, hemoglobina glikosilatuan onurak dakartzatela dirudi, baina emaitzak ez dira hain argiak.

Eztabaida: dieta begetarianoa eta mediterranea zereal, fruta eta barazkietan oinarritzen dira. Elikagai horiek antioxidatzaile iturri garrantzitsuak dira eta antioxidatzaileek intsulinaren jarioa estimulatzeko dute baita intsulinarekiko erresistentzia gutxitu ere. Modu berean, zuntzetan aberatsak izatean, onuragarriak dira glukosaren metabolismorako. Dieta beganoaren eraginkortasuna ere zuntzetan aberatsa izateari lotzen zaio funtsean. Dieta zetogenikoaren kasuan, karbohidratoen gutxitzeak hesteetan glukosaren xurgapena murriztea dakarrela dirudi.

Ondorioak: dieta begetarianoak eta mediterraneoak onurak dakartzate hemoglobina glikosilatuan. Dieta beganoaren eta zetogenikoaren kasuan, emaitzek joera berbera jarraitzen dute baina beganoa aztertzen duten hainbat ikerketatan ez dira estatistikoki esanguratsuak eta zetogenikoaren kasuan dieta beste aldagai batzuekin batera aztertzen

denez, ezin dira harreman kausalak ezarri. Beraz, proposatzen diren gidaren oinarriak dieta begetarianoan eta mediterraneoan oinarritzen dira.

Hitz gakoak: 2 motako Diabetes Mellitusa, dieta begetarianoa, dieta mediterranea, dieta zetogenikoa, dieta beganoa, gluzemia.

ABSTRACT

Introduction: Type 2 diabetes is a metabolic disease that causes blood glucose levels to be too high. It is a serious public health problem, as it affects a large portion of the population and many of their major organs. Considering that diet is an essential non-pharmacological treatment for the prevention and management of type 2 diabetes, nurses can provide patients with information about healthy diets. Thus, through appropriate health education, they can play an important role in disease prevention.

Objectives: The main objective of this study is to conduct a systematic review of articles that analyze the effectiveness of various diets, including vegetarian, mediterranean, ketogenic, and vegan diets, for controlling glycemia in individuals with type 2 diabetes mellitus. Based on the results of this systematic review, we intend to recommend the foundation for a dietary guide that can be utilized by these nurses.

Methodology: A systematic search was conducted following the PIO structure. This search was carried out on December 10, 2022, in PubMed, BVS, Scopus, and Cochrane databases, and included publications that were published between 2013 and 2022.

Results: The vegetarian and mediterranean diets have a positive effect on glycosylated hemoglobin, making them good options for preventing type 2 diabetes mellitus and maintaining proper blood glucose levels. The ketogenic and vegan diets appear to provide benefits in glycosylated hemoglobin, but the results are not as clear.

Discussion: The vegetarian and mediterranean diets are based on grains, fruits, and vegetables. These foods are an important source of antioxidants that stimulate insulin flow and decrease insulin resistance. Moreover, being rich in fibers, they are beneficial for glucose metabolism. The effectiveness of the vegan diet is also fundamentally associated with being fiber-rich. In the case of the ketogenic diet, the reduction of carbohydrates appears to imply a decrease in the absorption of glucose in the intestine.

Conclusions: The vegetarian and mediterranean diets provide benefits in glycosylated hemoglobin. In the case of the vegan and ketogenic diets, the results follow the same trend, but in some vegan studies they are not statistically significant, and in the case of the ketogenic diet, it is studied jointly with other variables, so causal relationships cannot be established. Therefore, the basis for the proposed guide is based on the vegetarian and Mediterranean diets.

Keywords: Type 2 Diabetes Mellitus, vegetarian diet, mediterranean diet, ketogenic diet, vegan diet, blood glucose.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1 Diabetes Mellitusaren definizioa eta epidemiologia	1
1.2 Diabetes Mellitusaren arrisku faktoreak eta klinika	1
1.3 Diabetes Mellitusaren tratamendu ez-farmakologikoa	2
1.3.1 Dieta begetarianoa	2
1.3.2 Dieta mediterranea	3
1.3.3 Dieta zetogenikoa	4
1.3.4 Dieta beganoa	4
2. HELBURUA	6
3. METODOLOGIA	6
3.1. PIO egitura eta ikerketa-galdera	6
3.2. Bilaketa-estrategia	7
3.2. Baztertze- eta Barneratze-irizpideak	8
4. EMAITZAK	9
5. EZTABAIDA	12
6. MUGAK	15
7. ONDORIOAK	15
8. ELIKADURA OSASUNTSURAKO GIDA BATEN OINARRIAK	16
9. BIBLIOGRAFIA	19
10. ERANSKINAK	27
1. eranskina. Bilaketa-estrategia PubMed-en	27
2. eranskina. Bilaketa-estrategia BVS-n	27
3. eranskina. Bilaketa-estrategia Scopus-en	28
4. eranskina. Bilaketa-estrategia Cochrane-n	29
5. eranskina. Errebisio sistematikoan barneratu diren lanen ezaugarriak	30
6. eranskina. Plater osasungarria	39

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Bilaketa egiteko erabili diren deskriptoreak eta hitz gakoak	7
2. taula. Elikadura osasuntsurako gida baten oinarriak	17

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Dieta mediterraneoaren piramidea	4
2. irudia. Fluxu-diagrama	8

SIGLEN ZERRENDA

OME: Osasunaren Mundu Erakundea

IDF: International Diabetes Federation

DM: Diabetes Mellitus

BVS: Biblioteca Virtual de la Salud

MeSH: Medical Subject Heading

DeCS: Descriptores en Ciencias de la Salud

HbA1c: Hemoglobina glikosilatua

FFQ: Food Frequency Questionnaire

PDI: Plant-based Diet Index

GLP-1: glucagon-like peptide-1/1. motako glukagoiaren antzeko peptidoa

AOVE: Aceite de Oliva Virgen Extra

MEDAS: Mediterranean Diet Adherence Screener

DQI: Diet Quality Index

ADA: The American Diabetes Association

NCEP: National Cholesterol Education Program

GMI: Gorputz-masaren indizea

NDSR: Nutrition Data System for Research

IPAQ: International Physical Activity Questionnaire

DASH: Dietary Approach to Stop Hypertension

1. SARRERA

1.1 Diabetes Mellitusaren definizioa eta epidemiologia

2 motako diabetesa odoleko glukosa mailak altuegi izatea eragiten duen gaixotasun metabolikoa da. Glukosa irensten ditugun elikagaietatik eratortzen den azukrea da eta horren helburuetako bat, zelulei energia ematea da. Intsulina glukosa zeluletan sartzeaz arduratzen den eta organismoak jariatzen duen hormona da eta Diabetes Mellitusak (DM) intsulina nahikoa ez sortzea edo modu desegokian erabiltzea eragiten du. 2 motako DMan zelulek ez diote intsulinari modu egokian erantzuten. Arrazoi horregatik, organismoak intsulina gehiago behar du glukosa zeluletan sartzeko. Gorputzaren hasierako erantzuna intsulina gehiago jariatzea da zelulek erantzun dezaten, baina denborarekin, ezin du intsulina nahikoa sortu eta horren ondorioa da odoleko glukosa maila igotzea (1).

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, 1980. urtean Diabetes Mellitusaren prebalentzia mundu mailan 108 milioi pertsonakoa zen eta kopuru hori laukoiztu egin zen 2014. urterako. Gainera, 2000. urtetik 2015. urtera arte jasotako datuekin *The International Diabetes Federation* (IDF) delakoak egindako aurreikuspenak kontuan hartuz, 2045. urtean, 18–99 urteko adin-tartean, 693 milioi DM kasu egongo direla estimatu zen (2).

1.2 Diabetes Mellitusaren arrisku faktoreak eta klinika

2 motako DMA izateko arriskua areagotu dezaketen faktoreak honako hauek dira: gehiegizko pisua edo obesitatea izatea, gantzaren banaketa batez ere sabelean, aldakan eta iztarretan izatea, sedentarismoa, aurrekari familiarak, arraza eta jatorri etnikoa, odoleko lipidoen maila (HDL maila baxua eta triglizerido maila altua), 35 urtetik gorako adina, prediabetesa izatea, haurdunaldiko diabetesa pairatu izana edo 4 kg baino gehiagoko umea izatea eta obulutegi polikistikoaren sindromea pairatzea (3).

2 motako DMaren sintomak modu progresiboan garatzen dira. Zeinu eta sintomak izan daitezke poliuria eta honen ondoriozko polidipsia, polifagia, pisu galera, ikusmen lausoa, zaurien orbaintze atzeratua, infekzio errepikakorrak eta abar. 2 motako DMak organo nagusi askori eragiten die, hala nola bihotzari, odol-hodiei, nerbioei, begiei eta giltzurrunei (3).

Odoleko glukosaren kontrol egokiak konplikazio hauek garatzeko arriskua murriztu dezake (3):

- Bihotzeko eta odol-hodietako gaixotasunak: garun hodietako istripua, hipertentsioa eta aterosklerosia.
- Nerbioen kaltetzea (neuropatia). Odoleko glukosa altuak nerbioak suntsitu ditzake eta ondorioz, sentsibilitatearen galera eragin dezake.
- Giltzurruneko gaixotasuna, dialisian edo giltzurrun transplantean amai dezakeena.
- Begietako kaltea. DMak kataratak eta glaukoma izateko arriskua handitu dezake. Gainera, erretinako odol-hodiak kaltetu ditzake eta itsutasuna eragin dezake.
- Larruazaleko gaixotasunak, hala nola, bakterioen eta onddoen infekzioak.
- Zaurien orbaintze motela. Zauri hauek tratatu gabe uzten badira, infekzio larriak sor daitezke.
- Entzumen urritasuna.
- Dementia. Gluzemia altua memoriaren narriadura azkarrarekin lotzen da.

1.3 Diabetes Mellitusaren tratamendu ez-farmakologikoa

Diabetes Mellitusaren tratamenduari dagokionez, neurri farmakologikoak eta ez-farmakologikoak daude. Bizi-ohitura osasuntsuak jarraitzea 2 motako DMA artatzeko tratamendu ez-farmakologikoa da (4). Elikadura diabetesa prebenitzeko eta kudeatzeko ezinbestekoa den osagaia da eta DMA pairatzen duten pertsona guztiek elikadura-hezkuntza indibidualizatua jasotzea gomendagarria litzateke (5). DMarekin erlazioa aurkezten duten dieten artean begetarianoa, mediterraneo, zetogenikoa eta beganoa aipa daitezke.

Jarraian gure gizartean gehien erabiltzen diren dieta horien ezaugarri nagusiak azaltzen dira.

1.3.1 Dieta begetarianoa


Dieta begetarianoa jatorri begetaleko elikagaiak biltzen dituen elikadura mota bat da (6), hala nola, zerealak, lekaleak, tuberkuluak, barazkiak, frutak, olioak, haziak eta fruitu lehorrak. Elikadura begetarianoaren barruan mota desberdinak bereiz daitezke: dieta *obolaktobegetarianoa*, nagusiki landare-jatorriko elikagaietan oinarritzen dena, baina esnekiak eta arrautzak onartzen dituena. Dieta *laktobegetarianoa* aurrekoarekin

alderatuz, arrautzak kanpo uzten dituen eta elikadura *obobegetarianoa* ordea, esnekiak baztertzen dituen (6).

Proteina honako elikagaietatik eskuratzen da: sojaren eratorriak diren produktuak, lekaleak, fruitu lehorrak, haziak eta zereal integralak (7). Kaltzioari dagokionez, esnea eta esnekiak iturri bikainak dira. Elikadura *obobegetarianoa* jarraitzen duten pertsonak honako elikagaietatik eskuratu dezakete kaltzioa: barazki berde ilunak (aza eta brokolia), zerealak, sojazko esnea edo jogurta eta tofua (7). Omega 3-ari dagokionez, arraina eta arrautzak ez dituzten dietak (*laktobegetarianoa*), elikagai hauetatik eskuratu dezakete: kanola-olioa, soja-olioa, intxaurrak eta liho haziak (7). Burnia honako hau kontsumituz lortu daiteke: ilarrak, dilistak, zerealak, produktu integralak, hosto berde iluneko barazkiak eta fruitu lehorrak (7). Azkenik, ezinbestekoa da B12 bitamina gehigarri gisa kontsumitzea, mikronutriente hori ez baitago landare-jatorriko elikagaietan (8).

1.3.2 Dieta mediterranea

Dieta mediterranea fruta eta barazkietan aberatsa den eta karbohidratoak eta haragia murriztean datzan dieta da (9). Gomendatutako osagaien artean barazkiak eta lekaleak, garaiko fruta, arraina (bereziki urdina), haragi zuria, pasta, arroza eta fruitu lehorrak daude. Gantzari dagokionez, iturri nagusia oliba-olio Birjina Estra da (9). Fruta eta barazkiak dieta mediterraneoaren bitamina, mineral eta zuntz iturri nagusiak dira. Ogitik eta zerealetatik eratortzen diren elikagaiak (pasta eta arroza) eguneroko jardueretarako ezinbesteko energia iturriak dira. Esnea eta esnekiak kaltzio iturri bikaina dira. Arrain urdina kontsumitzea ere gomendatzen da, haren gantzak (Omega 3) gaixotasun kardiobaskularretatik babesteko propietateak dituelako. Arrautzak kalitate oneko proteinen iturri dira (10). Gomendatzen ez diren elikagaiak haragi gorria, gozoak, arrautzak eta gurina dira (10,11). 1 irudian dieta mediterraneoaren piramidea aurkezten da (10).



1. irudia. Dieta mediterraneoaren piramidea

1.3.3 Dieta zetogenikoa

Dieta zetogenikoa gantzetan aberatsa, proteinetan egokia eta karbohidratoetan oso urria den elikadura mota bat da, baraualdian gertatzen diren aldaketa metabolikoak imitatzen dituen zetosia eragitea helburu duena (12). Gorputza zetosi egoeran sartzen denean, gantza modu eraginkorren erretzen da eta horrela energia lortzen da. Horregatik, dieta hau eraginkorra izan daiteke pisu galerarako, odoleko gluzemia murrizteko eta insulina-mailak hobetzeko (13).

Dieta zetogenikoak elikagai hauek hartzen ditu barne: haragia, arrain koipetsua, arrautzak, gurina, prozesatu gabeko gazta, fruitu lehorrak eta haziak, olio osasuntsuak, ahuakatea eta karbohidratoetan urriak diren barazkiak (13, 14).

Dieta zetogenikoan murriztu edo ezabatu behar diren elikagaiak hauek dira: janari azukredunak, zerealak, fruta, lekaleak, sustraiko barazkiak eta tuberkuluak, produktu dietetikoak (prozesatuak eta karbohidratoetan aberatsak izaten dira), gantz aseak eta alkohola (karbohidrato kopuru handia du) (13, 14).

1.3.4 Dieta beganoa

Dieta beganoa animalia-jatorriko elikagai mota guztiak ezabatzen dituen elikadura mota bat da (6). Dieta horrek honako elikagaiak hartzen ditu barne: lekaleak,

fruitu lehorrak, barazkiak, frutak, zereal integralak, tuberkuluak, haziak eta oliba-olio Birjina Estra (8).

Proteina honako elikagaietatik eskuratzen da: soja (batez ere, texturizaturia) eta gainerako lekaleak, zerealak eta kakahueteak (8). Kaltzioa sesamo hazietatik, kaltzioan aberatsak diren edari begetaletatik, almendretatik, tofutik eta lekaleetatik eskuratzen da (8). Omega 3-ari dagokionez, intxaurrak kontsumitzeaz gain, lino, chia eta kalamu hazietatik baita oliba-oliotik ere eskuratu daitezke (8). Burni ekarpenari helduz, pistaxoak, soja, dilistak, garbantzuak eta babarrunak kontsumitu daitezke (8). Azkenik, ezinbestekoa da B12 bitamina osagarri gisa kontsumitzea (8).

Diabetes Mellitusa osasun publikorako arazo larria da, populazioaren kopuru handi bati eragiten diona. Ebidentzian oinarrituz, ikusi da DMaren intzidentzia handia dela eta hurrengo urteetan areagotu egingo dela (2). Egoera horren aurrean, oso garrantzitsua da gaixotasun horren prebentzioa eta tratamendua indartzea. Aurretik esan bezala, elikadura diabetesa prebenitzeko eta kudeatzeko ezinbestekoa da eta osasun-ikuspegi batetik DMA pairatzen duten pertsona guztiek jaso beharko lukete elikadura-hezkuntza indibidualizatua (5). Gainera, azpimarratzekoa da gaur egungo gizarteak gero eta dieta ezberdin gehiago kontsumitzen dituela. Beraz, erizainaren rola oso garrantzitsua da komunitatea hezteko eta gaixotasun metaboliko horren prebentzio edota maneiu egokia lortzeko. Pazienteari aholku egokiak emateaz gain eta bere autonomia eta erantzukizuna bultzatzeaz gain, erizainak pazientearen senitartekoei eta zaintzaileei elikadura egokiaren inguruko hezkuntza terapeutikoa eskainiz DMaren arrisku faktoreak murriztu ditzake.

Orain arte aipatutakoa kontuan hartuz, lan honetan elikadura-hezkuntza indibidualizatu batek barne hartu beharko lituzkeen osagaiak aurkitu nahi dira. Horretarako, gorago deskribatutako lau dieten arteko bakoitzak DMA pairatzen duten pertsonen gluzemian duen eragina aztertu nahi da. Indikatzaila nagusi bezala hemoglobina glikosilatua (HbA1c) erabiliko da, azken hiru hilabeteetan odoleko glukosa mailaren batezbestekoa ezagutzeko. Azterketa horretatik abiatuz erizainek aplikatu dezaketen elikadura gida baten oinarriak proposatu nahi dira.

2. HELBURUA

Lan honen helburu nagusia 2 motako Diabetes Mellitusa duten pazienteen gluzemiaren kontrolerako dieta ezberdinen eraginkortasuna aztertzen duten artikuluen errebisio sistematiko bat egitea da.

Errebisio sistematikoak lau helburu zehatz jarraitzen ditu:

- Dieta begetarianoak duen eragina 2 motako Diabetes Mellitusa pairatzen duten pertsonen gluzemian.
- Dieta mediterraneoak duen eragina 2 motako Diabetes Mellitusa pairatzen duten pertsonen gluzemian.
- Dieta zetogenikoak duen eragina 2 motako Diabetes Mellitusa pairatzen duten pertsonen gluzemian.
- Dieta beganoak duen eragina 2 motako Diabetes Mellitusa pairatzen duten pertsonen gluzemian.

Halaber, errebisio sistematiko horretan lortutako emaitzetan oinarrituz, 2 motako DMA duten pazienteen gluzemia kontrolatzeko erizainok aplikatu dezakegun elikadura aholku multzo edo gida baten oinarriak proposatu nahi dira.

3. METODOLOGIA

3.1. PIO egitura eta ikerketa-galdera

Lanarekin hasteko ikerketa-galdera bat proposatu da eta bilaketa-sistematikoa egiteko PIO egitura jarraitu da.

Ikerketa-galdera: *2 motako Diabetes Mellitusa duten pertsonetan dieta zehatz bat (begetarianoa, mediterraneo, zetogenikoa, beganoa) jarraitzea eraginkorra al da odoleko glukosa mailak dagozkion baloreen tartean mantentzeko?*

PIO egitura:

- P (patient/pazientea): 2 motako Diabetes Mellitusa duten pazienteak
- I (intervention/interbentzioa): dieta zehatzen (begetarianoa, mediterraneo, zetogenikoa, beganoa) jarraipena
- O (outcome/emaitza): odoleko glukosa mailak dagozkion baloreen tartean mantentzea

3.2. Bilaketa-estrategia

Bilaketa-sistematikoa PubMed, BVS, Scopus eta Cochrane datu-baseetan egin da 2022ko abenduaren 10an eta barne hartu dira 2013tik 2022ra bitartean argitaratutako argitalpenak.

Bilaketa-estrategia garatzeko PIO egitura jarraitu da eta *Descriptores en Ciencias de la Salud (DeCS)* eta *Medical Subject Heading (MeSH)* deskriptoreak eta hitz gakoak erabili dira (*ikusi 1. taula*). **DeCS**ak honako hauek izan dira: Diabetes Mellitus Tipo 2, Dieta Vegetariana, Dieta Mediterranea, Dieta Cetogénica, Dieta Vegana eta Glucemia. **MeSH**ak honako hauek izan dira: Diabetes Mellitus, Type 2; Diet, Vegetarian; Diet, Mediterranean; Diet, Ketogenic; Diet, Vegan eta Blood Glucose. **Hitz gakoei** dagokienez, honako hauek erabili dira: "Diabetes Mellitus, Type 2", "Diet, Vegetarian", "Diet, Mediterranean", "Diet, Ketogenic", "Diet, Vegan" eta "Blood Glucose".

Bilaketa-estrategia berdina erabili da lau datu-baseetan (*ikusi 1-4 eranskinak*). Aitzitik, ez da aukerarik egon iragazki berak ezartzeko datu-base guztietan; PubMeden honako iragazki hauek ezarri dira: azken 10 urteetako argitalpena izatea, hizkuntza gaztelera edo ingelesa izatea eta testu osoa agertzea. BVSen eta Scopus-en honako hauek izan dira iragazkiak: azken 10 urteetako argitalpena izatea eta hizkuntza gaztelera edo ingelesa izatea. Cochranen erabili den iragazki bakarra da azken 10 urteetako argitalpena izatea.

1. taula. Bilaketa egiteko erabili diren deskriptoreak eta hitz gakoak


PIO egitura	DeCS	MeSH	Hitz gakoak
P (patient/pazientea)	Diabetes Mellitus Tipo 2	Diabetes Mellitus, Type 2	"Diabetes Mellitus, Type 2"
I (intervention/interbentzioa)	Dieta Vegetariana Dieta Mediterránea Dieta Cetogénica Dieta Vegana	Diet, Vegetarian Diet, Mediterranean Diet, Ketogenic Diet, Vegan	"Diet, Vegetarian" "Diet, Mediterranean" "Diet, Ketogenic" "Diet, Vegan"
O (outcome/emaitza)	Glucemia	Blood Glucose	"Blood Glucose"

3.2. Baztertze- eta Barneratze-irizpideak

Lana aurrera eramateko erabilitako **barneratze-irizpideak** honako hauek izan dira: azken 10 urteetako argitalpena izatea, testua gazteleraz edo ingelesez egotea, testu osoa izatea, 2 motako Diabetes Mellitusaren eta dieta ezberdinen (begetarianoa, mediterranea, zetogenikoa eta beganoa) arteko erlazioa aztertzen duten argitalpenak izatea.

Lanaren **baztertze-irizpideak** honako hauek izan dira: argitalpena ez izatea azken 10 urteetakoa, testua ez egotea gazteleraz edo ingelesez, ez izatea testu osoa, 2 motako Diabetes Mellitusaren eta dieta ezberdinen (begetarianoa, mediterranea, zetogenikoa eta beganoa) arteko erlazioa aztertzen ez duten argitalpenak izatea, 1 motako Diabetes Mellitusaren baita haurdunaldiko Diabetesaren inguruko argitalpena izatea eta obesitatea eta hipertentsioa aztertzen dituzten argitalpenak izatea.

Barneratze- eta baztertze-irizpideak kontuan izanik, bilaketa-sistematikoaren bidez lortu diren emaitzak ondorengo fluxu-diagraman ikusi daitezke (*ikusi 2. Irudia*)



2. irudia. Fluxu-diagrama

4. EMAITZAK

Lan honetan lau dieta mota desberdinek 2 motako Diabetes Mellitusarekin daukaten harremana aztertzen duten ikerketen errebisio sistematiko bat egin nahi izan da eta DMA daukaten pazienteen gluzemia kontrolatzeko erizainok aplika dezakegun gida baten oinarriak proposatu nahi izan dira.

Errebisio sistematikoari dagokionez, aurreko atalean deskribatu dira bilaketa-estrategia eta baztertzeko zein barneratze-irizpideak. Metodologia horri jarraituz, bertan barne hartu diren lan gehienak mota desberdinetako zeharkako nahiz luzerako ikerketa enpirikoak izan dira, baina hainbat errebisio sistematiko eta meta-analisi ere kontuan hartu dira. Eremu geografikoari dagokionez gehienak Europan kokatzen dira, dena den badira Asian eta Estatu Batuetan garatu diren hainbat ikerketa ere. Lanen kalitate irizpideari dagokionez, gehienak lehenengo eta bigarren kuartileko aldizkarietan argitaratu dira. 5. eranskinean errebisio sistematiko horretan barne hartu diren artikuluek zein kuartiletan kokatzen diren, artikuluko bakoitzak aztertzen dituen ikerketak zein motatakoak diren, zein eremu geografikotan kokatzen diren eta beste hainbat informazio aurkezten da (*ikusi 5. eranskina*). Jarraian, errebisio sistematiko honetatik eratorritako diren emaitza nagusienak deskribatzen dira.

Dieta begetarianoari dagokionez, Kahleova et al. ek 2015ean argitaratutako literaturaren errebisio baten arabera, landareetan gailentzen den elikadura egokia da gluzemiaren kontrolerako eta Diabetes Mellitusaren konplikazioen prebentziorako. Ikerketa horretan azpimarratzen da, dieta begetarianoak intsulinarekiko erresistentzia gutxitzen duela dieta hipokalorikoarekin alderatuta (15). Ildo beretik, argitalpen berriago batean (Yang et al., 2021), ikusi da landa-eremuko 37985 parte-hartzaile txinatarrez osatutako kohorte ikerketa batean, 2 motako DMA pairatzeko arriskua txikiagoa dela ($p < 0.043$) landareetan gailentzen den dietarekin animalietan aberatsa den dietarekin alderatuz. Izan ere, dieta begetarianoa zuntzetan eta antioxidatzaileetan aberatsa da eta horrek, glukosaren metabolismoa hobetzen du (16).

Dieta mediterraneoari helduz, Blancas et al. ek 2022an argitaratutako ikerketan ikusi da dieta mediterranea jarraitzen dutenek murrizketa aurkezten dutela HbA1c-an ($p < 0.001$). Hala ere, ez dago ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik dieta mediterranea jarraitu dutenen eta kontrol taldearen (dieta osasuntsurako gomendioak jaso dituztenak) artean ($p = 0.51$) (17). Dieta horrekiko atxikiduran sakonduz, Celada et al. ek 2019an argitaratutako behaketa-ikerketa deskribatzailearen arabera, dieta

mediterraneoaren inguruko osasun-hezkuntzak dieta horrekiko atxikidura indartzen du eta dieta horrekiko atxikidura baxua HbA1c-a handitzeko joerarekin erlazionatzen da nahiz eta areagotzea ez den estatistikoki esanguratsua ($p < 0.06$). Atxikidura baxua gluzemia maila altuekin esanguratsuki erlazionatzen da ($p < 0.04$) (18). Ildo beretik, Esposito et al.ek 2015ean argitaratutako errebisio sistematiko batek barne hartzen dituen 2 meta-analisisen arabera, dieta mediterraneoarekiko atxikidurak etorkizunean DMA izateko probabilitatea %19-23 bitartean murrizten du. Errebisio horrek barne-hartzen duen beste meta-analisi batek dio, dieta mediterraneoarekin sindrome metabolikoa murrizteko probabilitatea %49 handitzen dela (19). Halaber, Esposito et al. ek 2013an argitaratutako literaturaren beste errebisio batean adierazi da, dieta mediterranea jarraitzen duten pertsonetan DMA izateko arriskua baxuagoa dela eta odoleko HbA1c-aren maila murrizten dela normalean erabiltzen diren beste dieta batzuekin alderatuta (20). Emaiza berak behatu dira berriki argitaratutako errebisio sistematiko eta meta-analisi batean (Milenkovic et al., 2021) (21). Aitzitik, Alonso et al. en 2019an argitaratutako ausazko saiakuntza klinikoak adierazi du, dieta mediterraneoak ez duela eragin estatistikoki esanguratsurik ez berehala, ez 3 hilabete barru eta ez 12 hilabete barru HbA1c-aren murrizketan ($p > 0.05$ kasu guztietan). Gauza bera gertatzen da jan osteko gluzemiarekin ($p > 0.05$ kasu guztietan) (22). Dieta mediterraneoaren hainbat aldaeretan sakonduz, Basterra et al. ek 2019an argitaratutako saiakuntzaren arabera, oliba olio horitutako dieta mediterraneoarekiko atxikidurak, intxaurrekin osatutako dieta mediterraneoarekiko atxikidurarekin eta kontrol taldearekin alderatuta, nabarmen murrizten du esku-hartze farmakologiko berriak hartzeko beharraren probabilitatea, 2 motako DMA duten eta gaixotasun kardiobaskularrik ez duten parte-hartzaileetan (23).

Dieta zetogenikoari dagokionez, Walton et al. ek 2019an garatutako ikerketan karbohidrato gutxiko eta gantz handiko dieta zetogenikoa jarraitzen dutenek murrizketa estatistikoki esanguratsua aurkezten dute HbA1c-aren mailan ($p < 0.0001$) (4). Emaiza bera ikusi da, Yuan et al. ek 2020an argitaratutako meta-analisisian (24) eta Tinguely et al. ek 2021ean egindako errebisio sistematikoan barne hartzen diren 10 ikerketetan (25). Aipagarria da azken 10 ikerketa horietan HbA1c-aren jaitsiera horiek desberdinak izan direla neurketa-epe desberdina erabili duten ikerketen arabera: 3 aste ondoren %0.6, 4 hilabete ondoren %0.9, 32 aste ondoren %1.3, 90 egun ondoren %8.9tik %5.6ra, 24 aste ondoren %7.8tik %6.3ra, urte bat igaro ondoren %7.6tik %6.3ra eta 15 hilabete ondoren %7.5tik %5.9ra (25).

Dieta beganoari helduz, Trepanowski et al.ek 2014an garatutako errebisio sistematikoak barne hartutako saiakuntza batek dio Kolesterolari buruzko Heziketa Programa Nazionalak (*National Cholesterol Education Program - NCEP*) gomendatutako dieta jarraitzen dutenekin alderatuta, dieta beganoak baraualdiko gluzemiaren kontzentrazioa hobetzen duela. Zehazki dieta beganoa jarraitzen dutenek %7ko jaitsiera lortzen dute eta NCEPk gomendatutako dieta jarraitzen dutenek %2koa. Dena den, bien arteko ezberdintasuna ez da estatistikoki esanguratsua ($p = 0.10$). Errebisio sistematiko berberan ikusi da, dieta beganoak ADAk gomendatutako dietak baino neurri handiagoan murrizten duela baraualdiko gluzemia (%28ko murrizketa vs. %12ko murrizketa) 12 aste igaro ondoren. Baina HbA1c-ari dagokionez, ez dago ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik bi dieta hauen artean. Azkenik, lan horren beste saiakuntza baten arabera, dieta beganoak ADAk gomendatutako dietarekin alderatuta, HbA1c-aren mailak murrizten ditu (%15eko murrizketa vs. %5eko murrizketa) 22 aste igaro ondoren. Baraualdiko gluzemiari dagokionez, aldiz, ez dago ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik ($p > 0.05$) (26).

Berriagoa den eta dieta beganoa ikertu duen beste errebisio sistematiko eta meta-analisi baten arabera (Pollakova et al., 2021), dieta beganoa jarraitzeak HbA1c-aren murrizketa dakar eta lan horrek biltzen dituen bost ikerketetan murrizketa hori estatistikoki esanguratsua da ($p < 0.05$) (27). Azkenik, 2018an Barnard et al. ek argitaratutako ikerketak dieta beganoa eta energia murrizketan oinarritzen den dieta aztertzen ditu. Lan horretan, bi dietek HbA1c-ren mailak murrizten dituztela ikusi da, baina ez ordea, modu estatistikoki esanguratsuan. Gainera, ez da ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik ikusi bi dietek eragindako hobekuntzen artean ($p = 0.68$) (28).

Aztertutako dieta batzuk elkarren artean konparatzen dituzten ikerketei dagokienez, Gardner et al. ek 2022an argitaratutako saiakuntza kliniko batean bai dieta mediterraneoak eta bai zetogenikoak HbA1c mailak murrizten dituzte, baina bien artean ez dago ezberdintasun estatistiko esanguratsurik ($p = 0.11$) (29). Bestalde, dieta mediterranea dieta begetarianoarekin alderatzen duen beste ikerketa batean (Di Mauro et al., 2020) ikusi da GLP-1 maila altuagoa dela eta gluzemia maila baxuagoa dieta mediterranea jarraitzen duten parte-hartzaileetan; GLP-1 mailak altuagoak dira dieta mediterraneoarekin begetarianoarekin baino 60' ondoren ($p < 0.0005$), 90' ondoren ($p < 0.05$), 120' ondoren ($p < 0.0005$), 150' ondoren ($p < 0.0001$), 180' ondoren ($p < 0.05$) eta 210' ondoren ($p < 0.05$). Halaber, odoleko glukosa maila baxuagoa da dieta

mediterraneoarekin dieta begetarianoarekin baino bai 90'ondoren ($p < 0.001$) eta bai 120'ondoren ($p < 0.05$) ere (30).

Beste ikerketa batean (Esposito et al., 2014) karbohidratoetan urria den dieta mediterranea eta gantzetan urria den dieta alderatzen dira eta 4 urte barru, karbohidratoetan urria den dieta mediterranea jarraitu zutenen taldean, hipergluzemia artatzeko medikazioa behar zuten pazienteak %44 ziren eta gantzetan urria den dieta jarraitzen zutenetan %70 ($p < 0.001$). Gainera, gantzetan urria den dieta jarraitzen zutenen taldean 6.1 urtetara denek behar izan zuten medikazioa, beste taldean ordea, 8.1 urte barru. Bi taldeen artean ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak egon ziren HbA1c-an ($p < 0.001$) (31). Azkenik, Rossi et al. ek 2013an garatutako kohorte azterketa prospektiboan dieta mediterranea eta glukosan urria den dieta DMaren prebentziorako eta tratamendurako lagungarriak direla ondorioztatzen da (32).

5. EZTABAIDA

Lan honen helburu nagusia dieta begetarianoak, mediterraneoak, zetogenikoak eta beganoak 2 motako Diabetes Mellitusarekin daukaten erlazioa aztertzen duten ikerketen errebisio sistematiko bat egitea da. Emaizetan ikusi dugun moduan, hainbat ikerketetan aurkitu da dieta begetarianoa egokia dela gluzemiaren kontrolerako eta Diabetes Mellitusaren prebentziorako. Emaizta hauen oinarrian egon daitezkeen arazoien artean, ikerketa batzuk (15,33,34) gantz-azido asean kontsumoaren murrizteak eragiten duen intsulinarekiko erresistentziaren gutxitzea aipatzen dute. Halaber, dieta hau frutan, barazkietan eta fruitu lehorretan aberatsa denez, autore batzuk (35,36) dietaren eraginkortasuna aipatutako elikagaiak molekula antioxidatzaileen iturri garrantzitsua izatearekin lotzen dute. Bestalde, hainbat ikerketek (37) dieta begetarianoa jarraitzen dutenek intsulinarekiko sentiberatasun handiagoa eta hemoburdinaren kontzentrazio baxuagoa dutela aurkitu dute eta horrek ere azaldu dezake dietak gluzemiaren murrizketan eta DMaren kontrolean daukan eragina. Emaizetan aipatu dugun moduan, Yang et al. ek 2021ean argitaratutako ikerketak adierazten du landareetan oinarritutako dieta onuragarria dela 2 motako diabetesaren arriskua murrizteko eta herrialde desberdinetan egindako ikerketa prospektibo ezberdinek bat egiten dute emaitza horrekin (16,38,39). Yang et al. en ikerketak dieta begetarianoaren onurak landareetan gailentzen den dietaren zuntzekin eta antioxidatzaileekin lotzen ditu. Izan ere, dieta honek barne hartzen dituen zereal, fruta eta barazkiak antioxidatzaile

iturri garrantzitsuak dira. Honekin lotuta, azterketa ezberdinek erakutsi dute polifenol izenez ezagutzen den molekula antioxidatzaileak intsulinareen jariora estimulatzen duela eta intsulinarekiko erresistentzia gutxitzen duela (16). Gainera, zuntzetan aberatsa den dieta onuragarria da glukosaren metabolismorako, jan osteko glukosaren xurgapena murrizten duelako.

Dieta mediterraneoari helduz, aurretik esan bezala, Blancas et al. ek 2022an argitaratutako ikerketan ikusi da dieta mediterranea eta dieta osasungarria esku-hartze eraginkorrak direla 2 motako DMaren prebentziorako (17). Emaitza horiek bat datoz Espainiako Arteriosklerosiaren Elkartearen azken laburpen exekutiboan egindako aurkikuntzekin (40). Elkarre horren arabera, ADAren gomendioetan oinarritutako dieta mediterraneoak eta dieta osasungarriak HbA1c-ren mailak murrizten dituzte. Blancas et al. en ikerketan aztertzen diren bi dieten artean bereizten den parametro bakarra intsulina maila da, intsulinarekiko erresistentziarekin lotuta dagoena. Badirudi dieta mediterraneoak aldaketa genetiko bat eragiten duela mugikortasun nuklear handia duen A1 taldeko proteinaren (HMGA1) parte-hartzearen bidez eta horrela intsulinarekiko erresistentzian aldaketak eragingo lituzke (41). Ildo beretik, Esposito et al. ek 2015ean argitaratutako errebisio sistematikoaren arabera, dieta mediterraneoarekiko atxikidurak etorkizunean DMA izateko probabilitatea murrizten du (19). Hala ere, ikusi da 2 motako DMaren intzidentziaren jaitsiera batez ere, dieta osasuntsuarekin lotzen dela, hala nola, dieta mediterraneoarekin, DASH (Dietary Approach to Stop Hypertension) dietarekin eta elikadura begetarianoarekin (42). Izan ere, eredu dietetiko guztiek, dieta mediterraneoaren ezaugarri oso antzekoak dituzte. Gehienbat landare-jatorriko elikagaien kontsumoa lehenesten dute eta produktu integraletan, frutetan eta barazkietan aberatsak dira (43). Azalpen hau bat dator Basterra et al. ek (2019) dieta mediterraneoaren eragina arrazoitzeko diotenarekin, hots, dieta horren eragina patroi dietetikoaren osagai orokorrekin lotzen duen argudioarekin (23). Halaber, Milenkovic et al. en (2021) argitalpenak barne hartzen dituen errebisio sistematiko eta meta-analisi ezberdinek bat egiten dute ondorengo honetan: dieta mediterraneoak ez duela nagusitasunik erakutsi DASH dietarekin eta elikadura begetarianoarekin alderatuz (44,45,46,47). Horrek ez du dieta mediterraneoaren ondorio onuragarria inolaz ere zalantzan jartzen, baizik eta, kontinente ezberdinetan saiakuntza kliniko handiagoak eta denboran luzeagoak egiteko beharra azpimarratzen du (21).

Dieta zetogenikoari dagokionez, Yuan et al. ek 2020an argitaratutako errebisio sistematikoaren arabera, berau onuragarria da 2 motako DMA pairatzen duten pertsonen osasunerako eta horrekin bat egiten du Walton et al. ek 2019an garatutako ikerketak. Dirudienez, karbohidratoen murrizketa zorrotzak hesteetan ematen den monosakaridoen xurgapena murrizten du, eta horrek, odoleko glukosa maila jaitea eragiten du. Yuan et al. en errebisio sistematikoak barne hartzen dituen 8 ikerketek adierazi dute dieta zetogenikoaren ondoren, HbA1c-aren maila murrizten dela (ikerketa gehienetan %1.5 jaisten da HbA1c-a). Yuan et al. en arabera, hobekuntza horren arrazoi bat dietaren jarraipen egokia egitean datza. Izan ere, jarraipen hori ziurtatzen duen ikerketa batean aztertutako subjektuak 2 motako DMA berriki diagnostikatutako pertsonak dira, sendagairik hartzen ez dutenak eta kontrol dietetikoaren menpe soilik daudenak (24). Tinguely et al. ek 2021ean egindako errebisio sistematikoan barne hartzen diren 10 ikerketetan ere HbA1c-aren jaitsiera ikusi da dieta zetogenikoaren ondoren. Baina ikerketa horiek dieta zetogenikoak HbA1c-aren maila murrizten duela adierazi arren, ikerketa diseinuek ezin dute frogatu dieta horrek HbA1c-an eragin kausala duenik. Izan ere, parametro metaboliko hori murriztearen arrazoa talde guztiek jasan duten pisu galera izan daiteke, dieta mota edozein dela ere. Gainera, ikerketetan parte hartu duten talde guztiek elikadura-aholkua jasotzeaz gain, bizi-ohitura osasuntsuari buruzko gomendioak ere jaso dituzte. Beraz, zaila da bereiztea elikadurak izan duen eragina eta bizi-ohiturei dagokienez egindako bestelako aldaketan eragina (25).

Azkenik, dieta beganoari dagokionez, Pollakova et al. ek 2021ean argitaratutako berrikuspenaren arabera dieta beganoak gluzemia mailak jaisten ditu 2 motako DMA pairatzen duten pertsonetan. Horren arrazoa izan daiteke, dieta beganoa zuntzetan aberatsa izatea. Zuntzetan aberatsak diren elikagaiek jan osteko glukosaren xurgapena murrizten dute. Gainera, ikusi da haragiaren kontsumoak (batez ere, haragi gorria) 2 motako DMA pairatzeko arriskua handitzen duela. Izan ere, haragi gorriaren kontsumoarekin hemoburdinaren kontzentrazioa altuagoa da eta intsulinarekiko erresistentzia areagotzen da. Elikadura beganoa jarraitzen dutenek ez dute haragirik kontsumitzen eta hemoburdinaren kontzentrazio baxuak dituzte. Arrazoi horregatik, ondorioztatu daiteke dieta beganoa jarraitzen dutenek haragia kontsumitzen dutenek baino intsulinarekiko sentikortasun handiagoa daukatela. Garrantzitsua da aipatzea dieta beganoa jarraitzen duten pertsonen B12 bitamina osagarri gisa hartu behar dutela. Izan ere, bitamina hori animalia jatorriko proteinetatik eskuratu dezakegu, eta beraz, haragia kontsumitzen ez duten pertsonen bitamina horren gabezia jasan dezakete (27).

6. MUGAK

Errebisio sistematiko honetan barne hartu diren ikerketa gehienak kalitate handikoak diren arren, badira lan honetan aipatu daitezkeen hainbat muga. Lehen, ikerketa gehienak zeharkako ikerketak izatean datza. Hori horrela izanik, etorkizunerako komenigarria litzateke aztertu ditugun lau dieta moten eragina epe luzeago batetan zehar aztertzen duten ikerketak barne hartzen dituzten errebisio sistematikoak edo meta-analisiak egitea. Bestalde, zenbait ikerketetan, dieta aztertzeaz gain, beste bizi ohitura osasuntsu batzuk (adibidez, ariketa fisikoa) ere aztertzen dira. Horrek HbA1c-an behatu diren onurak dietari bakarrik egozteaz zaila egiten du. Dena den, azken hau dieta zetogenikoaren kasuan ematen da batez ere. Azkenik, ikerketa gehienak Europan eta paziente kaukasiarrekin egiteak beste kontinente batzuetako pazienteengan emaitzak orokortzeko aukera murrizten du.

7. ONDORIOAK

Lan honen helburu nagusia 2 motako Diabetes Mellitusa pairatzen duten pazienteen gluzemiaren kontrolerako lau dieta ezberdinen eraginkortasuna aztertzen duten artikuluen errebisio sistematiko bat egitea izan da. Horretarako, indikatzaile nagusi gisa hemoglobina glikosilatua (HbA1c) erabili da.

Errebisio sistematiko honek agerian uzten du bai dieta begetarianoak eta bai dieta mediterraneoak HbA1c-an eragin positiboa dutela. Bi dieta horien antzekotasuna zuntzetan eta antioxidatzaileetan aberatsak direla da; zereal, fruta eta barazkietan oinarritzen diren dietak, hain zuzen. Elikagai horiek antioxidatzaile iturri garrantzitsuak dira eta antioxidatzaileek intsulinarren jarioa estimulatu dute baita intsulinarekiko erresistentzia gutxitu ere. Modu berean, zuntzetan aberatsak izatean, onuragarriak dira glukosaren metabolismorako. Beraz, ondorioztatu daiteke bi dietak aukera egokiak direla 2 motako DMaren prebentziorako eta odoleko glukosa mailak balore egokietan mantentzeko. Halaber, dieta mediterraneoarekiko atxikidura aztertu den ikerketetan ikusi da atxikidura hori aldagai garrantzitsua dela dieta eraginkorra izateko. Dieta zetogenikoari eta beganoari dagokienez, HbA1c-an onurak dakartzatela dirudi, baina dieta beganoa aztertzen duten ikerketa gehienetan emaitzak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Bestalde, dieta zetogenikoa aztertzen duten ikerketen kasuan, elikadura aholkuak emateaz gain bizi-ohitura osasuntsuaren inguruan ere gomendioak ematen direnez, ezin da frogatu dieta horrek HbA1c-an eragin kausala duenik. Halere,

interesgarria litzateke bai dieta zetogenikoaren eta bai dieta beganoaren inguruan ikerketa gehiago egitea.

8. ELIKADURA OSASUNTSURAKO GIDA BATEN OINARRIAK

Lanaren helburuetan aipatu den bezala, GRAL honen bigarren helburua, helburu nagusi bezala egindako errebisio sistematikoan eta, beraz, ebidentzia zientifikoan oinarrituz, DMA daukaten pazienteen gluzemia kontrolatzeko erizainok iradoki dezakegun elikadura aholkuak edo elikadura gida baten oinarriak proposatzean datza. Gida baten garapena beste maila bateko lan baten helburua litzatekeela badakigu, baina gure ustez, gida horren oinarriak proposatzea ekarpen baliagarria izan daiteke hezkuntza terapeutikoa eskaini nahi duen erizainarentzat.

Emaitzetan eta ondorietan esan den moduan, dieta begetarianoak eta dieta mediterraneoak HbA1c-an eragin positiboa dutela kontuan hartuz, berauek barne hartzen dituzten osagaiek garrantzi berezia hartuko dute egingo dugun proposamenean. Gidaren oinarri hauetan, gomendatzen diren elikagaiak eta gomendatzen den kontsumoa aipatuko dira. Horrela, paziente bakoitzak dieta begetarianoa (edo honen aldaerak) edo dieta mediterranea jarraitzeko aukera izan dezake.

Lan honetan lortutako emaitzez gain, guk proposatuko dugun elikadura gidaren oinarrietan Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen eta “Osasungarri Jateko Platera” izenez ezagutzen den elikadura eredua ere kontuan hartuko da, alegia, Harvardeko unibertsitateak egindako elikadura tresna (*ikusi 6. eranskina*). Eredu horretan, platera hiru zatitan banatzen da: plateraren erdia barazki eta frutekin osatu behar da, plateraren laurden bat karbohidratoekin eta beste laurdena proteinekin (49). Eredu hori baztertu gabe, lan honetan egindako errebisio sistematikoaren emaitzetatik eratorritako elikadura gomendioek eratuko dituzte proposatuko dugun gidaren oinarriak. Izan ere, eraginkorrak gertatu diren bi dietek, hots, dieta begetarianoak eta dieta mediterraneoak landare-jatorriko elikagaien kontsumoa lehenesten dute eta produktu integraletan, barazkietan eta frutetan aberatsak dira, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen eredua bezala.

Aipatutako guztia kontuan hartuz, elikadura osasuntsu batetarako proposatzen dugun gidaren oinarriak ondorengo taulan laburbildu daitezke (*ikusi 2 taula*).

2. taula. Elikadura osasuntsurako gida baten oinarriak

	ELIKAGAI MOTA	GOMENDATZEN DEN KONTSUMOA	ANO BAKOITZARI DAGOKIONA
Dieta mediterranea eta dieta begetarianoa (9, 48)	Barazkiak	≥ 2 ano/egun (bat bazkarian eta bestea afarian)	150-200g (plater erdia)
	Fruta	≥ 3 ano/egun	120-200g
	Fruitu lehorrak	1-2 ano /egun	20g
	Lekaleak	≥ 2 ano/aste	60-80 g
	Oliba olioa Birjina Extra	2-4 ano/egun	13ml
	Tuberkuluak: patata	3 ano/aste	150-200g
	Ogia, arroza, pasta eta bestelako zerealak (hobe integralak)	1-2 ano/otordu bakoitzeko*	40-60g ogi 60-80g pasta/arroza
Dieta mediterranea eta dieta begetariano batzuk (9, 48)	Esnekiak**	2 ano /egun	Baso bat esne: 250ml 2 jogurt: 200g Gazta onduzko 2 xafla: 40g Gazta freskoa: 125g
	Arrautza***	4-7ano/aste	-
Dieta mediterranea (9)	Arrain zuria eta urdina	≥ 2 ano/aste	100-125g
	Haragi zuria	2 ano/aste	125-150g
Dieta begetarianoa (48)	Sojaren eratorriak: tofua, seitana, tempeh-a	1-2 ano/aste	Tofu edo tempeh bloke erdia: 150-200g 2 seitan-xerra: 150-200g
	Omega 3: Intxaurrak, lino olioa	Intxaur eskukada 1 /egun Lino olioa: 1 goilara/egun	Intxaurrak: 20g Liho olioa: 2.5-5g

* ano kopurua jarduera fisikoaren araberakoa

**Obolakteobegetarianoak eta Laktobegetarianoak

***Obolakteobegetarianoak eta Obobegetarianoak

Amaitzeko, azpimarratzekoa da, aholku hauek ez dutela elikadura osasuntsua bultzatzeko gida bat ordezkatu nahi. Lan honetan erizainak bizi-ohitura osasuntsuak bultzatzeko eman dezakeen hezkuntza agerian utzi nahi izan da eta hezkuntza horretarako ebidentzia zientifikoan oinarritutako aholku multzo bat eskaini nahi izan dira. Aholku hauek emateaz gain, erizainak pazientearen jarraipena egin beharko luke. Halaber, erizainaren rola oso garrantzitsua dela zalantzan jarri gabe, interesgarria litzateke hezkuntza hori diziplinarteko ikuspegi batean oinarrituz eskaintzea.

9. BIBLIOGRAFIA

1. MedlinePlus. Información de salud para usted [Internet]. Estatu Batuak: Biblioteca Nacional de Medicina; 2021 [kontsulta data: 2022/11/11]. Diabetes tipo 2; [2 pantaila]. Erabilgarri: <https://medlineplus.gov/spanish/diabetestype2.html>
2. Cho NH, Shaw JE, Karuranga S, Huang Y, da Rocha JD, Ohlrogge AW et al. IDF Diabetes Atlas: Global estimates of diabetes prevalence for 2017 and projections for 2045. Diabetes Research and Clinical Practice [Internet]. 2018 [kontsulta data: 2022/11/11]; 138: 271-281. Erabilgarri: <https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0168822718302031?via%3Dihub>
3. MayoClinic [Internet]. Estatu Batuak: MFMER; 2022 [kontsulta data: 2022/11/11]. Diabetes de tipo 2; [9 pantaila]. Erabilgarri: <https://www.mayoclinic.org/es-es/diseases-conditions/type-2-diabetes/symptoms-causes/syc-20351193>
4. Walton CM, Perry K, Hart RH, Berry SL, Bikman BT. Improvement in Glycemic and Lipid Profiles in Type 2 Diabetics with a 90-Day Ketogenic Diet. Journal of Diabetes Research [Internet]. 2019 [kontsulta data: 2022/11/11]; 2019: 1-6. Erabilgarri: <https://www.hindawi.com/journals/jdr/2019/8681959/>
5. American Diabetes Association. Foundations of care: education, nutrition, physical activity, smoking cessation, psychosocial care, and immunization. Diabetes Care [Internet]. 2015 [kontsulta data: 2022/11/11]; 38(1): 20-30. Erabilgarri: https://diabetesjournals.org/care/article/38/Supplement_1/S20/37290/4-Foundations-of-Care-Education-Nutrition-Physical
6. Órgano de expresión de la Sociedad Española de Pediatría Extrahospitalaria y Atención Primaria. Pediatría integral: Programa de Formación Continuada en Pediatría Extrahospitalaria, Nutrición II. Madrid: Sociedad Española de Pediatría Extrahospitalaria y Atención Primaria (SEPEAP); 2015. Txostena identifikatzen duen zenbakia: 5.
7. MayoClinic [Internet]. Estatu Batuak: MFMER; 2022 [kontsulta data: 2022/11/11]. Estilo de vida saludable. Nutrición y comida saludable; [7 pantaila]. Erabilgarri:

- <https://www.mayoclinic.org/es-es/healthy-lifestyle/nutrition-and-healthy-eating/in-depth/vegetarian-diet/art-20046446>
